

Proiektuaren Sarrera

Proiektu hau errepideetan autoek sortzen duten presioa aprobetxatuz energia sortzean oinarritzen da. Horretarako, errepidean plaka bereziak instalatuko dira, eta ibilgailuak gaineretik igarotzean sortzen den presioa energia elektriko bihurtuko da. Energia hori baterietan bilduko da, ondoren etxeak, hiriak edo argiteria publikoa hornitzeko.

Sistema honek energia garbia eta jasangarria sortzen du, eguraldiaren menpe egon gabe, autoen zirkulazioa egunero etengabea delako. Gainera, plakak material erresistentez eginda daude eta euria xurgatzeko gai dira, uholdeak saihestuz. Ingurumena errespetatzen duen alternatiba da, kutsadurarik sortzen ez duena, eta 2030 Agendarekin bat datorren irtenbide berritzailea, etorkizun jasangarriago baten alde.